

EAJk bere bitartekaritza Europan eskaini die ekonomi sektoreei

GASTEIZ

Jon Gangoiti EAJko eurodiputatuak bere alderdiaren bitartekaritza eskaini zien atzo Euskal Autonomi Elkarteke ekonomi sektoreei, «Europako Komunitatean beren interesak defendatzeko». Eskaintza hau industria, nekazaritza eta arrantza sektoreei egin zien Gangoitik, «1993ko Europak dakarren erronka dela eta elkarlanean ihardun beharra da goelako».

Eurodiputatu jeltzaleak azaldu zuenez, «Estatu guztiek egiten dute presio handia beren interes ekonomikoak defendatzeko, haietariko batzuk EKren barruan 30 urte baino gehiago daramatzate eta gurea baino ekonomia konpetitiboagoa dutela, eta guk ezin dugun gutxiagorik egin».

Euskal Autonomi Elkarteak horretarako duen aukera bakarra Europako Legebiltzarrean ekimenak aurkeztea dela esan zuen Gangoitik, «EKren gestioak zuzenean Estatuarekin egiten dituelako». EAJk aurrera eramango dituen ekintzetarako lehenbiziko pausua «ekonomi arlo bakoitzaren txekoa egitea da, beren beharrak ezagutzeko» eta, ondoren, «EAJk beren interesak defendatuko ditu Legebiltzarrean».

1993ko urtarrilean industria, arrantza eta nekazaritzaren inguruko legegintza Europako Komunitateak egingo duela aipatu zuen Jon Gangoitik bere eskaitza argitzeko.

Azuak arrain haztegi eta industria eraldatzailea ekarri du Japoniatik

Elektrizitate osagarri alorrean antzeko lankidetzak akordioak sinatuko dira

Japoniako enpresa batek akordioa sinatu du Euskal Herriko enpresari batzuekin, bertan arrain haztegi bat eta beronen industria eraldatzailea ezartzeko. Halaber, datorren astean elektrikitate alorrean beste akordio bat sinatuko dute euskal eta japoniar enpresa batzuek, Jon Azua lehendakariordeak atzo jakin erazi zuenez.

GASTEIZ

Jon Azuak ekialdeko lurralde horretara egindako bidaiaren berri eman zion atzo Eusko Legebiltzarreko Industria Batzordeari. Sailburuak azaldu zuen bere bidaiaren helburua lurralde hartako enprekin harremanetan sartzea izan zela, bertako inbertsioak EAera erakartzeko eta euskal enpresak japoniar merkatura hurbiltzeko asmoz.

Helburu hauekin, Azuak lau bilera izan zituen bertako erakundeekin, 29 enpresa bisitatu zituen, lau mintegitan hartu zuen parte eta Osakako Azokan ere izan zen. Automobilgintzako industria laguntzailea eta erreminta-makina alorrean zentratu ziren Azuaren gestioak Japonian.

Bidaiaren ostean, «teknologia elkarri trukatzeko eta japoniar kapitalak euskal enpresetan parte hartzeko oportunitateak sortu dira» ziurtatu zuen Azuak.

EUSKAL HERRIAREN BERRI Lehendakariordeak aipatu zuenez, Japoniarrek ez omen zeki-



Japonian egindako gestioen berri eman zuen Azuak.

AITOR

✓ **Teknologia trukatzeko eta japoniar kapitalak euskal enpresetan parte hartzeko ahalbideak sortu direla ziurtatu zuen Azuak.**

ten ia Euskal Herriko zegoenik ezta bertako industriaren berririk ere. Ekialdeko lurralde honetan bazeukaten, ordea, terrorismoaren berri. Merkatu Bateratua indarrean jartzen denean enpresentzako laguntza politika, gizarte gatazkak, hemengo produktibitate eskasa eta lan malgutatsunik eza izan ziren solasgaiak Azua eta niponiarren artean.

Eusko Alkartasuna ezik, Legebiltzarreko talde guztiek onetsi zuten Azuak Japonian izandako gestioa. Bidaian enpresari gutxi egotea kriti-

katu zuen EAK. Talde politikoen, gainera, «Euskadiren itxura beltza» aldatu beharra aldarrikatu zuten, baina euskal hiritarren inbertsioen inguruko itxaropen faltsurik ez sortzeko gomendioa egin zuten alderdiek.

Jon Azua bat etorri zen kontu horietan eta, aitortu zuenez, Japonian enpresa bakar batek, Mazda hain zuten, Europako produkzio lantegi bat finkatzeko asmoa du. Horregatik, lehendakariordeak «gehiegizko baidakortasunaz» oharterazi zuen.

LAB: «Birmoldaketa negoziatzeko prest egongo ginateke berrindustrializazio politika balego»

M.A. / BILBO

Joselu Cereceda eta Javier Elorriagak, LAB sindikatuko Idazkari-tza Nazionaleko partaideek atzo Bilbon adierazi zuten, LAB «prest egon daiteke industri birmoldaketa prozesu baten negoziaketan sartzeko, baldin eta era berean herri honen industrializazioak jarraituko duela neurri ezberdinen bitartez ziurtatzen bada».

AHVren gaia Madrileko bileran ez zutela aztertu adierazi zuten Azua eta Arzalluzek eta LABen ustez «altzairu berezien gai 'beroekin' ez bateratzeko asmoarekin» eman zuten azalpen hau. Elorriagak gaineratu zuenez, «Labe Garaien arazoak mintzatu ziren, baina ez dute ezer esan datu guztiek desagertuko dela adierazten bait dute».


Madrileko bileraren ondoren, «euskal industriaren suntsipena bizkortu» egingo dela adierazi zuten Cerecedak, eta «Gasteizko Gobernu Madrilen nahietara makurtu» dela gaineratu. «Egungo egoeraren

benetako erruduna subiranotasun politiko falta da» LABen iritziz. Euskal Herriarentzako erabakirik garrantzitsuenak «hemendik kanpo» hartu direla salatzeaz gain, «gure etorkizun ekonomiko eta industrial planifikatzeko gaitasunik eza» azpimarratu zuten sindikatuko kideek.

MOBILIZAZIOAK GOGORTUKO DITUZTE Kanpoko inbertsiorik ez izatea «munduko krisi ekonomikoak eta batez ere Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait eskualdetan egin duten industri suntsiketak» eragin dute LABeko kideen iritziz.

«Inor ez da eskualde desindustrializatu hauetan inbertitzen ausartzen. Nafarroan ere egoera berbera da baina kanpoko inbertsioak sartzen dira» adierazi zuen Cerecedak.

LABek desindustrializazioaren aurkako mobilizazioak gogortu egingo dituela iragarri zuten sindikatuko ordezkariak. Gaur bertan Gasteizen egingo duten ordezkarien bileran, egoera aztertzeaz gain, zentzu honetan zenbait erabaki har ditzake-



Joselu Zereceda.

tela aurreratu zuten.

Azkenik, gainontzeko sindikatuek egin bezala, LABek hilaren 30erako manifestazio nazionalerako deialdia egin zuen. LAB beste sindikatuekin batera joango da manifes-

tazio horretara, baina bukaeran banatu egingo da, «gure mezua ezberdina bait da». Manifestazioa «batzuentzat aurretik egindako mobilizazioen gailurra izango bada ere, guretzat beste batzuekin hasteko inflexio puntua izango da» gaineratu zuten LABeko partaideek.

KUPOA INBERTSIOETARA BIDERATZEA Batzar Nagusietako taldeak «Bizkaiko Diputazioak 1992ko kupo Madrili ez ordaindu eta dirua berrindustrializazioarako inbertsioetara bideratzea» jasotzen duen proposamena aurkeztu zuen atzo foru erakundearen.

Carlos Rodriguez taldekideak adierazi zuenez, 1992an 100.000 milioi pezetatik gora ordainduko dituzte EAEk kupo moduan, «eta horrek pobrezia eta langabezia besterik ez ditu ekartzen» gaineratu zuen.

Jon Idigoras HBko eledunaren esanetan, Euskal Herriko arazo industrial konponbidea «subiranotasunaren bidetik» etorriko da.

Nafarroako komertzio txikiak babesa eskatu dute

IRUNEA

Hipermerkatuen lehia dela eta, Nafarroako komertzio txikiak erakundearen babesa eskatu dute Merkatal Ganbararen bitartez. Bi izan dira eskaera nagusiak: merkatal zentru handiak sortzeko lizentzia gehiago ez ematea batetik, eta bestetik, lehia leiala defendatzeko neurri bereziak har ditzatela.

Nafarroako Merkatal Ganbararen oharrak dioenez, azkenaldian azaldu diren salmenta eta banaketa modu berriek eta hipermerkatuek «ohizko merkataritzak nozitzen zituen arazoak areagotu ditu».

Hori dela eta, Nafarroan oraingoz hipermerkatu gehiago ez zabaltzea komenigarria litzatekeela diote merkataritza txikiak eta, ondorioz, lizentzia berririk ez banatzeko eskatu die erakundeak. Halaber, lehia ez leiala eragozteko honako neurriak proposatu dituzte: baimenik ez duten azoka eta txozna modukoekin gogor jokatzea, merkatal zentruak eragiten dituzten kostu guztiak beraien gain har ditzatela, eta merkatal enpresen arteko akordio edota hitzarmenenak gertutik kontrolatzea.

Atzo zabaldu zen Expo Anel erakusketa Iruñean

J.C.E. / IRUNEA

Atzo zabaldu zen Gotorlekoko Armen Aretoan Nafarroako Enpresa Laboralen Elkartearen Expo-Anel erakusketa. Lehenago Pedro Garrido ANELeko lehendakariak eta Angel Rodriguez Nafarroako Gobernuo Industria eta Merkataritza sailburuak elkartearen katalogo berria aurkeztu zuten.

ANELek Nafarroako 62 sozietate anonimo laboral —kapitalaren % 50 baino gehiago langileen eskuetan jartzen duten enpresak, alegia— elkartzten duen erakundea da. Gogoratu behar da ere elkarte horrek sektore guztietako enpresa laboralak bazi-detzat dituela. Bere helburu nagusia enpresa laboralek daukaten irudi txarra ezabatzea da.

Sozietate laboralari askotan leporatzen zaio sozietate anonimoen krisialdiaren 'adabaki' izatea. Antolatzaileek eta Merkataritza sailburuak berak, ordea, Nafarroan ekonomiararen eredu lanpostu eta aberastasunaren sorrerako erabat onuragarria dela azpimarratu zuten. Ezin da ahaztu ere ANELek bere enpresen exportazioarako azaltzen duten ahalmenari erantzuna ematen saiatzen dela gero eta gehiago.